

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Ahozko Hizkuntzaren Didaktika	151323	2025-2026
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
Haur Hezkuntzako Gradua	3	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Derrigorrezkoa	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Jaione Ibarra Atutxa Alazne Martin Zugazaga	jibarra@bam.eus amartin@bam.eus	

Justifikazioa
Haur Hezkuntzan ahozko adierazpena lantzea ezinbestekoa da umeek euren bizitzan, eskola eremuan zein gizarteko arlo desberdinetan egin behar dituzten hizkuntz jarduerak gauzatzeko. Eskola Hezkuntza eremua denez, ahozko adierazpena, erabili ez ezik, modu planifikatu eta sistematikoan lantzeko lekua da. Horretarako ikasgai honek arlo bitan eragingo du: alde batetik, ahozko adierazpenaren didaktikan zentratuko da eta, bestetik, ahozko literaturan, gelarako baliabide moduan.

Aurrebaldintzak
Ez dago

Gaitasunak
Gaitasun orokorrak GO2: IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. Beste pertsona batzuekin eraginkortasunez erlazionatzea, norberak pentsatzen edota sentitzen duena argi adieraziz, idazkera eta adierazpide grafikoak lagun dituela. 2.menderatze maila: Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta lagungarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko, luzera ertaineko idazkietan. ADIERAZLEAK: • Zenbait elementu erlazionatzen ditu (datuak, iritziak, etab.) ondorioetara iristeko. • Idazkiaren egitura lagungarria da ulertzeko. • Edukiak transmititzeko hizkera egokia erabiltzen du. • Irakurlearen interesa bereganatzen du

Berariazko gaitasunak

1.BG. Ahozko adierazpeneko edukiak aukeratu, sekuentziatu eta curriculum proposamen bat diseinatu eta garatu; horretarako hizkuntzaren erabilera sozialak eta errealak kontuan izanik, umeen gaitasun eta aurrerapenak oinarri hartuta eta gelako umeen artean izan daitezkeen gaitasun aniztasunak modu demokratikoan bateratuz.

- Edukiak aukeratu eta esplizitatzen ditu, aniztasunaren balorazio positiboa, errespetua, eta aukera berdintasuna kontuan hartuta.
- Hizkuntzako curriculum proiektua eraikitzen du, testu generoak eta abilezia diskurtsiboak sekuentziatzeko irizpideak egoki aplikatuz.
- Hizkuntzako Curriculum proiektua diseinatzeko edukiak egoki aukeratzen ditu: testu generoak eta dagozkien abilezia diskurtsiboak.

2.BG. Haur Hezkuntzako ziklo bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik eta taldearen barruan izan daitezkeen heziketa behar desberdinei erantzuteko, ikasketa egoera egokiak diseinatu eta garatu, jarritako ikasketa helburuak lortzeko.

- Hizkuntzako proiektuak diseinatzeko, Haur Hezkuntzako umeen behar komunikatibo eta sozialak kontuan izanik.
- Irakaskuntza estrategia aktiboak erabiltzen ditu, ikaslearen autonomia gaitasuna bultzatzeko.
- Gelako aniztasuna eta umeen zailtasun errealak kontuan hartzen ditu atazak diseinatzeko.
- Denbora eta espazioa antolatzen ditu haurren ohitura eta beharrak kontuan izanik: loa, elikadura, jolasa, garbitasuna
- Ikasketa egoera egokiak proposatzen ditu, literatura eta irakurketa haurrarentzako gozamenezko esperientziak izan daitezkeen.
- Kooperazioa eta hausnarketa bultzatzen ditu, ikerketa, aurkikuntza eta ikasketa partekatua eraginez.
- Baliabide egokiak aukeratzen ditu ahozko literatura gelaratzeko.

3.BG. Ikaslearen ezagutza eta aurrerapenak ebaluatzeko prozedura eta tresnak diseinatu, ebaluaketa irizpide argiak eta objektiboak formulatuz eta irakaskuntza ikasketa estrategien barruan kontuan hartuz.

- Informazio esanguratsua eta zehatza batzeko tresna eta prozedurak diseinatzeko.
- Hizkuntzaren jabekuntzaren aldiak kontuan izanik proposatzen ditu ebaluaketa irizpideak.
- Testu genero eta adinaren arabera, abilezia diskurtsibotik deskribatzen ditu ebaluazio irizpideak.
- Ebaluaketa irizpideak ikasleekin partekatuzko prozedurak diseinatzeko.
- Aurrezagutzen diagnostikoa eta behaketa sistematikoa erabiltzen ditu, proposamen didaktikoak ikaslearen behar eta zailtasunen arabera egokituz.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaian



4.GHI. Kalitatezko hezkuntza. 6.OLS Hezkuntza ekologikoa: Ikaslea gai da hezkuntzaren berezko balioaz jabetzeko eta bere garapenerako dituen hezkuntza-beharrak aztertu eta identifikatzeko.

Ahozko literatura moduluaren bidez ikaslea gai izango da kalitatezko hezkuntza lortzen laguntzeko. Izan ere, gure kultura ezagutuz ikasleari aukera emango dio bizi den gizartean hobeto integratzen. Hizkuntza arloan ikasleak ezagutuko ditu haur hezkuntzako ikaslearen artean dauden desberdintasunak hizkuntzaren erabileraren aldetik eta ezagutuko du nola lagundu ikasle horiei dakitenetik abiatuta besteen maila lortzeko.

Edukiak

1. EDUKIEN AUKERAKETA
2. AHOZKO ADIERAZPENA LANTZEKO ESKU-HARTZE MOTAK
3. EBALUAZIOAREN TRATAMENDUA
4. AHOZKO LITERATURA HHko GELAN: OINARRIZKO KONTZEPTUAK
5. AHOZKO LITERATURAKO BALIABIDEAK ETA JARDUERAK GELARAKO

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikaslearen esperientziak azalatu (%8): ikaslearen aurrezagutzak mobilizatu eta esperientziak azalertzeko, ikasleen arteko eta irakasle-ikasleen arteko interakzio estrategia bultzatuko da.

Ereduen Behaketa gidatua (%20): Sekuentziazio ereduak eta gelako esku-hartze eredu desberdinen behaketa gidatua (plantilarekin edo galdetegiarekin) eginez, ikasleak jarduerak eta proiektuak egiteko ezagutzak bereganatuko ditu. Era berean, ereduak bilatzeko informazio iturri desberdinak arakatuko dituzte, besteak beste, web orrialdeak.

Kontzeptualizazioa (%25): estrategia hau modu desberdinetan garatuko da:

- Artikuluen irakurketa gidatua eta ondoren gelako eztabaida bultzatuko da teorizazioa lantzeko.
- Ereduen behaketaren ondoren, jarduerak diseinatzeko oinarri metodologikoak zehaztuko dira.

Esperimentazio aktiboa (%47): estrategia hau honelako jardueren bidez garatuko da:

- Gelan ariketak egingo dira, esku-hartzeen diseinuak manipulatu eta entrenatzeko.
- Ikasleek jarduera fitxak diseinatuko dituzte.

Ikasleek proiektuak egingo dituzte, bai ahozko literaturari lotuta zein ahozko adierazpenari lotuta.

Ebaluazioa

AZTERKETA %20 (BG2, GO2)

IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA %15 (GO2)

SD %15 (GO2, BG1, BG2, BG3)

PROGRAMAZIOA %20 (BG1)

AHOZKO LITERATURA %30 (GO2, BG2)

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

1. Irakurketa artikulak
2. Behaketarako ereduak: edukien mapak, jarduerak, proiektuak
3. Irakasleak planteatzen dituen jarduerak
4. Lanerako gidoiak eta plantillak

BIBLIOGRAFIA

- ALARIO, M.D.C., ALONSO, M.D.L.C., ROBLEDO, M.Á., GÓMEZ, M.B.. (2004). *Mi primer portfolio. Portfolio Europeo de las Lenguas*. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte de España
- AZKUE, R.M., (1989). *Euskalerriaren Yakintza*. I,II,III,IV. Bilbao: Euskaltzaindia, Espasa Calpé.
- BARANDIARAN, J.M., (1973). *Obras Completas*, I,II,III. Bilbao: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca
- BARRIO, L. (2001). Lengua oral en educación infantil. In A. Camps (Ed.), *El aula como espacio de investigación y reflexión (Investigaciones en didáctica de la lengua)* (p. 109-127). España: Grao
- BASSOLS, M. (2003). *Modelos textuales teoría y práctica*. Octaedro ediciones.
- BIGAS, M. (2008). El lenguaje oral en la escuela infantil. *Glosas didácticas*, 17, 33-39. Recuperado de <http://www.um.es/glosasdidacticas/numeros/GD17/03.pdf>
- BIGAS, M. (1996). La importancia del lenguaje oral en la educación infantil, *Aula* 46.
- CAMPS A., (2003). *Secuencias didácticas para aprender a escribir*. GRAO, Barcelona
- CAMPS A, RIBAS T. (1998). Regulación del proceso de redacción y del proceso de aprendizaje: función de las pautas como instrumentos de evaluación formativa, *Textos* 16.
- CAMPS, A. (1996). Proyectos de lengua entre la teoría y la práctica. *Cultura y Educación*, 2, 43-57
- DIEGO, J. (2004). Quien necesita qué información y para qué, *Evaluación como ayuda al aprendizaje*, GRAO, 2008
- DIEGO J. (1998). La evaluación en la escuela infantil (3-6 años) ¿Quién necesita qué información y para qué?, *Revista Aula de Innovación Educativa* 72
- DOLZ, J., GAGNON, R. (2010). El género textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito. *Lenguaje*, 38 (2), 497-523.
- DOLZ, J & SCHNEWULY, B. (1997). Géneros y progresión en expresión oral y escrita, *Textos*, 11, 77-98.
- DOLZ, Joaquim; VILÀ, Montserrat (Koord.)(1997). L'oral formal, *Articles*, 12 (monografikoa).
- ETXEBARRIA, J.M., (2003). *Euskal urtea ohituraz betea*. Ibaizabal Argitaletxea.
- Eusko Jaurlaritza – 75/2023 Dekretua. Haur Hezkuntzako Euskal Curriculum. <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/e/pv/d/2023/05/30/75/dof/spa/html/webleg00-confich/es/>
- FONS, M., PALOU, J. (2016). *Didáctica de la lengua y la literatura en Educación Infantil. Síntesis*
- GOODMAN, K.(1993). "Lenguaje total. La manera natural del desarrollo del lenguaje", *Infancia: educar de 0 a 6 años*, 2, 9-15
- HUARTE, M., OZERINJAUREGI, J. (2012). Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean In Mendealde Kultur Elkartea (arg), *Hizkuntzaz jabetzen (0-6) (183-208 or)*. XVI Jardunaldiak. Bilbo
- LABAYRU IKASTEGIA, (2011). *Zuztarretatik ahora. Orbelak airez aire*. Bilbao, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko, Ugao-Miraballes eta Zaratamoko udalak eta Labayru Ikastegia.
- LEKUONA, J.M, (1982). *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.

PAIA, X. (2013). *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua

PEREZ, M. (2010). Referentes para la didáctica del lenguaje en el primer ciclo. Educación inicial.. Bogotá: Kimpres Ltda

SAINZ M., OZAETA A., GARRO, E. (2010). Ahozko hizkuntza lantzen: haur hezkuntzan hasi eta unibertsitateraino, Donostia: Xangorin, D.L.

TOUGH, (1989). Lenguaje, conversación y educación. Madrid: Visor

VODOZ, F ZANONE, Y. (1992). Un genre narratif: l'énigme. Séquence didaktique, 1-5P (Libk. Cahier nº10) Département de L'instruction Publique-Genève, Enseignement Primaire, Secteur des Langues-Français (Responsable: Auguste Pasquier). (Itzulpen argitaragabea: Begoña Ocio Endaya – Begoñako Andra Mari Magisteritza Eskolako Hizkuntza Saila, Bilbao)

WECK, G. (1994). "Las dificultades de lenguaje al comienzo de la escolaridad", Comunicación, lenguaje y educación, 23, 55-68

WECK, G., (1991). *La cohesión dans les textes d'enfants*. Paris: Delachaux et Niestlé.

Web orri ezberdinak: Ahotsak.eus; urtesasoia.com; herriondarea.eus; ahozkoliteratura.eus, ...